

155. ALDIZKARIA - 2016ko abuztuaren 11

ANTSOAIN

Merkataritzako Mahaiaren funtzionamenduaren erregelamendua Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2016ko apirilaren 27an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Antsoaingo Merkataritzako Mahaiaren funtzionamenduaren gaineko erregelamendua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatuari jarraikiz, onespena jendaurrean egon zen hogeita hamar egun baliodunean, iragarkia 2016ko 93. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, maiatzaren 16an, interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez zituzten.

Jendaurreko epea inork alegaziorik egin gabe iraganik, Erregelamendua behin betiko onetsi eta osorik ematen da argitara, Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Antsoainen, 2016ko ekainaren 23an.–Alkatea, Ander Andoni Oroz Casimiro.

ANTSOINGO MERKATARITZAKO MAHAIAREN FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honek xede du Merkataritzako Mahaiaren eraketa eta funtzionamenduaren barne araubidea erregulatzea.

2. artikulua. Izaera.

Merkataritzako eta Ostalaritzako Mahaia kontseilu sektorial gisa eratzten da, bat eginda Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 69. artikuluan, Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 130. eta 131. artikuluetan, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22.2 artikuluan xedatutakorekin. Mahaia Ogasunaren, Ondarearen eta Hirigintzaren Informazio Batzordeari atxikiko zaio, eta organo aholku-emailea izanen da tokiko merkataritzaren arloan. Oinarri izanen ditu herritarren partaidetzaren printzipioak eta Antsoaingo merkataritza banaketaren interes orokorren defentsa.

3. artikulua. Egoitza eta helbidea.

Merkataritzako Mahaiak Antsoaingo Udalaren bulegoetan izanen ditu egoitza eta helbidea.

4. artikulua. Eginkizunak.

1. Antsoaingo merkataritza sustatu, bultzatu eta garatzea, jarduketa mota guztiak eginez sektorearen onurarako zein Antsoaingo egoera ekonomikoaren hobekuntzarako.

2. Antsoain sustatzea tokiaren eta eskualdearen mailan, kultura, merkataritza eta aisialdi jasangarriaren eremu gisa.

3. Elkarlanean aritzea arau, hirigintza, ingurumen, gizarte, ekonomia edo beste izaera baten arloko neurriak sustatu eta ezartzeko eskumena duten administrazio publikoekin, Antsoaingo merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreak garapen orekatua eta jasangarria izan dezan.

4. Merkataritzako sektorea ikertu eta garatzeko lanak egitea, Udalaren eta merkataritza elkarteekin lankidetzan.

5. Jarduera soziokulturalak eta enpresa sustatzekoak antolatzea, baita prestakuntzarako eta informaziorako beste edozein ere, merkataritzaren sektoreari eta herritarrei oro har zuzenduak.

6. Materialak sortu eta erreproduzitzea, helburu dituztenak Antsoaingo merkataritzaren eta ostalaritzaren gaineko informazioa, prestakuntza eta sustapena, Udalaren eta merkataritza elkarteekin lankidetzan.

7. Merkataritza suspertzeko jarduerak antolatu eta bultzatzea.

8. Sostengua eta erraztasunak ematea hiri espazioak lehengoratu, egokitu eta hobetzeko, Antsoaingo merkataritzaren eta ostalaritzaren onurarako.

9. Baliabide ekonomikoaren lorpena sustatzea, berekiak edo besterenak izan, jarduerak finantzatzeko.

10. Foro tekniko eta aholku-emaile gisa aritzea, gizarte, merkataritza eta ekonomiaren arloetako interesa duten

proiektuak garatzen direnean, eta Antsoaingo Udalari proposatzea komenigarritzat jotzen dituen neurri, ekimen eta proposamen guztiak sektorea garatu eta hobetzeko.

11. Merkatarien elkarteek eta Udalak finantzatuko ditu jarduerak. Udalaren ekarpena ekitaldi bakoitzean erabilgarri dagoen diruaren arabera izanen da.

12. Lankidetzaren entitate publiko-privatu gisa eratzea, entitate juridiko berekiarekin. Mahai hau osatzen dutenek erabakitzen badute hori modurik onena dela Antsoaingo merkataritza sustatu, bultzatu eta garatzeko.

5. artikulua. Osaera.

Antsoaingo Merkataritzako Mahaiak kide hauek izanen ditu:

a) Antsoaingo alkate-udalburua, mahaiko burua izanen dena. Udalbatzako edozein kideren esku utz dezake burutza. Kulturako zinegotzi delegatua buruordea izanen da.

b) Udalean ordezkariak duten talde politikoetako zinegotzi bana.

c) Mahaiko idazkaria, mahaiko kideen artean aukeratuko dena.

d) Udalerriko merkatarien eta ostalarien elkarte guztien hiru ordezkari (erabakitzeko dago). Zentsu eguneratuan jasotzen den bazkide kopuruaren arabera ezarriko da ordezkariak hori.

e) Eskatuko da Nafarroako Gobernuko Merkataritza eta Turismo Departamentuko teknikari batek parte har dezala, egokia edo gomendagarria bada landu beharreko gairako.

f) Ogasunaren, Ondarearen eta Hirigintzaren Informazio Batzordeko buruak, edo horrek ordeztu duenak, parte har dezake, hitza duela baina botorik ez, Merkataritzako Mahaiak egokitzen duenean, gai-zerrendaren arabera. Beste edozeinek ere parte har dezake, baldintza berberetan, mahaiko kideetako edozeinek eskaturik eta mahaia berak hala erabakita, baldin eta mahaiko buruari jakinarazten bazaio idatziz 24 ordu lehenago.

6. artikulua. Izendapena, ordezkariak eta kargu-uztea.

1. a), b) eta c) ataleko kideak izanen dira bilkurak egitean kargu horiek betetzen dituztenak. Idazkariaren kasuan (c) atala), ordezkariak politikoko pertsona bat bada.

2. d), e) eta f) ataleko kideak izanen dira bilkurak egitean kasuan kasuko instituzioak edo erakundeak ordezkariak dituztenak. c) ataleko kidea ere bai, alde politikokoa ez bada.

3. Ordezkariak duten erakunde eta instituzio guztiek batera izendatuko dute nork ordeztuko dituen, justifikaziorik gabe agertu ezean.

4. Mahaian ordezkariak duten erakunde eta instituzioek, edozein unetan, zilegi izanen dute haiek izendatutako ordezkari titularrak edo ordezkariak aldatzea. Mahaiko idazkariari jakinaraziko diote, eta horrek alkate-udalburuari, horrek jakin dezan.

5. Ezertan ukatu gabe aurreko atalean adierazitakoa, mahaiko kideek kargua utziko dute mahaiaren aurrean uko egiteagatik edo eginkizun edo kargu publikoak betetzeko desgaitzen dituen arrazoi bat egoteagatik.

7. artikulua. Funtzionamendua.

1. Merkataritzako mahaia hiru hilabetean behin bilduko da, bilkura arruntetan, bai eta egiten diren bilkura berezi guztietan ere, artikuluan honen 3. atalean ezarritakoarekin bat.

2. Bilkura arruntetan, gai-zerrenda ekarriko du deialdiak, eta idazkariak jakinaraziko dio mahaiko kide bakoitzari, gutxienez hiru egun baliodun lehenago. Bilkuraren tokia eta ordua zehaztuko ditu.

3. Antsoaingo Merkataritzako Mahaiak bilkura bereziak egiten ditu, buruak hala aginduta, bere ekimenez edo gutxienez mahaiko kideen heren batek eskaturik. Deialdia gutxienez 48 ordu lehenago egiten da, honako hau zehaztuta: bilkuraren tokia eta ordua, eta deialdi berezi hori eskatu dutenek proposatutako puntuak.

4. Mahaia balioz eratu dadin lehenbiziko deialdian, beharrezkoa izanen da kide erdiak egotea gutxienez, eta haien artean, nahitaez, mahaiko burua, edo, kasua bada, horren ordezkaria.

5. Ezertan ukatu gabe erregelamendu honen 5. artikuluan ezarritakoa Merkataritzako Mahaiko kideak ordeztari buruz, kideek beste baten esku utz dezakete botoa bilkura zehatz baterako, idatziz eginez gero eta izendatutako ordezkariak joaterik ez badute. Mahaiko idazkariari aurkeztu behar zaio idatzia bilkura hasi aurretik. Idazkariak gainerako kideei jakinaraziko die mahaia eratzean. Mahaiko buruak buruordearen edo idazkariaren esku utz dezake botoa, eta bi horiek elkarren esku. Quorumaren ondorioetarako, ulertuko da bertan dagoela eskuordetza egiten duena.

6. Botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak, eta buruak trenkatuko ditu berdinketak, erregelamendu honen aldaketa izan ezik, horretarako gehiengo osoa behar baita.

7. Akta egiten da bilkura bakoitzean eta honako hau jasoko da nahitaez: bilkurara joandakoak, gai-zerrenda, non eta noiz egin den, eztabaiden puntu nagusiak eta hartutako erabakiak, emandako botoak zehaztuta, aldekoak, kontrakoak zein abstentzioak. Hurrengo bilkuran onetsiko da egiten den bilkura bakoitzaren akta.

8. artikulua.

Merkataritzako Mahaiaren funtzionamenduari buruzko erregelamendu honetan aurreikusten ez den gainerakoan, aplikagarria izanen da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoetarako ezarritakoa. Erregelamendu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iragarkiaren kodea: L1607766